

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIETAKO AZTERKETA

2008/2009 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK:

Bi aukeretako bat hautatu, eta bere lau galderei erantzun.

A AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Energia-baliabideak

- 1.1. Petrolioa: jatorria, eraketa eta metaketa. Aipatu haren erabilera garrantzizkoenak.
- 1.2. Fisio nuklearraren bidezko energia: ezaugarriak eta arazoak.

2. aztergaia (2,5 puntu)

Hidrosfera

- 2.1. Naturako ziklo hidrológico. Azaldu zer nolako eragina izan dezakeen eta nolako aldaketak egin ditzakeen gizakiak ziklo horretan.
- 2.2. Akuiferoak: kontzeptua eta motak. Deskribatu lurpeko uren kutsaduraren arrazoi nagusiak.

3. aztergaia (2,5 puntu)

Atmosfera

- 3.1. Lur planetan izan daitekeen atmosfera berotzeari dagokionez eta horrek ekartzen duenari begira, adierazi, erantzun arrazoituen bidez, ingurumenean sortuko liratekeen ondorio adierazgarrienak.
- 3.2. Temperatura-gradiente bertikalaren kontzeptua. Motak.

4. aztergaia (2,5 puntu)

Biosfera

- 4.1. Deskribatu ekosistema baten energia-fluxua.
- 4.2. Aipatu lurreko ekosistema baten maila trofiko adierazgarrien ezaugarriak, eta horien gaineko iruzkina egin.

B AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Gizadia eta ingurumena

1.1. Azaldu arrisku bolkanikoaren faktoreak.

1.2. Zein dira Lurrean arrisku sismikorik handiena duten eskualdeak, eta zergatik? Zer nolako aurreneurriak hartu beharko lirateke lurrikararen ondoriozko hondamendiak hain handiak ez izateko?

2. aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoak

2.1. Zer da ozonoa, nola sortu da lurreko atmosferan eta zer funtzio betetzen du atmosferako osagaia den aldetik?

2.2. Azal ezazu zertan den “berotegi-efektua”. Zein dira horren ondorio garrantzizkoenak? Esan zer neurri hartu beharko litzatekeen ingurumenaren arazo honi irtenbidea bilatzeko.

3. aztergaia (2,5 puntu)

Dinamika ozeanikoa

3.1. Korronte ozeanikoak. Azaldu dauden korronte motak.

3.2. “Ozeano global” kontzeptua azal ezazu laburki.

4. aztergaia (2,5 puntu)

Biosfera

4.1 Deskribatu hiri hondakin solidoen zabortege kontrolagabe batek izan dezakeen eragina lurzoruan, atmosferan eta lurzoru gaineko eta azpiko uretan.

4.2. Aipa itzazu hiri hondakin solidoak sortzen dituzten bi jardun. Beste hondakin motaren bat ezagutzen al duzu? Eman, gutxienez, bi adibide. Aipa itzazu hainbeste hondakin ez sortzeko eta ez pilatzeko neurri orokor batzuk.